

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LEGUTIOKO UDALAREN 2016-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak joan den apirilaren 26an aho batez onartu zuen Legutioko Udalaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

2016ko Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren; horiek zuzen erregistratuz gero, Udalaren Diruzaintza Geldikina 143 mila euroan murriztu beharko litzateke; Ibilgetuko saldoetan eragina duten beste salbuespen batzuk ere azaleratu dira. Gainera, kontuek ez dute kobratzeko kontu baten erregistroa jasotzen, 216 mila euroena, hirigintzako aprobetxamenduen kontzeptukoa; ez eta, lursail baten eskualdatzea ere.

HKEEk fiskalizazio-gai den Kontu Orokorrean jasotako finantza egoera aztertzen du. Eragiketa arruntek sortutako aurrezkoa behar hainbatekoa izan da zerbitzu publikoetan inbertsioak finantzatzeko. Etorkizunean, autofinantzaketak eta Geldikina une jakinetan baliatzeak bide emango dio Udalari kudeatzen dituen zerbitzu publikoek beharrezko dituzten inbertsioei aurre egiteko. 2016an Udalak ez du kanpoko finantzaketarik behar izan.

Honezaz guztiaz gain, Udalaren Kontu Hartzaitzak jaulkitako txostenari jarraikiz, 2016an bete dira aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak eta gastuaren araua.

Honela, bada, Udalak zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.